

## Azpeitiko Matxinada (1) 1766. Zergaitia

Deia, 1983-08-25.

Atzo Larramendiri eskeinitako ikuspuntuan esaten genuen *Azpeitiko Matxinada* gertatu zen urte berean hil zela (1766), eta Josu Lagunak Loiolatik eta Espainiako Erresuma guztietatik boteak izan ziren baino urtebete lehenago (1767).

Erantsi behar diot oraindik, Josu Lagunek Matxinadarenganako hartu zuten jarrerak zerikusirik izan zuela Carlos IIIgarrenak haserrean hartu zuen erabateko erabaki honetan.

Jakingarriak dira gai honetaz puntu batzu.

Gari eta artoaren garestidura izan zen erreboltaren sortzaile, batez ere *espekulatzailen* erruz heldu zelako; eta honek ba zuen Foruekin zerikusirik.

Azpeitia XVI eta XVIIgarren mendean burdin-industriaren buru zen; lanerako beso asko behar zenez, leku askotariko gizonak bildu ziren; Bizkaitarrak, Nafarrak, mugaz aruntzko euskaldunak eta berandarrak gehien bat; XVIIigarrenean hasi zen industria honen beherakada, eta 1766an 13 burdin olatik 4 besterik ez ziren lanean ari. Honetaz arduratu zirenak Azkoitiako Zalduntxoak izan ziren, bereziki Manuel Inazio Altuna; baina ez zegoen erremedio errazarik. Ildefonso Gurrutxagak<sup>1</sup> dionez, Matxinada honek badu 1.632koa (gatzaren estankoa) eta 1.718koarekin (aduanan lekualdaketa) zerikusirik, zeren bi matxinada hauetan herria kontraforuaren aurka altxa zen: "Gipuzkoako eta Bizkaiko leku askotan jauntxoei eraso zien, horien saldukeria salatuaz", eta Foruen alde.

Forua, gari eta artoaren ohizko eskasiaren aurkako balazta izaten bai zen; nahiz eta garai honetako ekonomiaren politikak aldatzen hasiak izan, gu oraindik eusko nazionalitatearen konzientziaren eraginik ez genuen (Sabin Arana oraindik mende bat urrun) eta korrente berri horiek gure alde jokarazteko ez ginen gai.

Erakunde forala denboraz kanpo geratzen hasia bai zen dagoeneko, eta Estatutuaren interesak hasiak geure instituzioaren jokia gainezkatzen.

Hala, Madrilen edo Madriletik bizi ziren gure herriko jauntxoen interesak eta bertan lanean zihardutenen artean diferentziak nabarmenak ziren. Kasu honetan, jauntxoek, *gordeta zeuzkaten granuak libreki saltzeko interesak*, eta horien baserri eta burdinoletan zihardutenak, berriz, bereak: *eguneroko ogia lanean irabazi behar zutenak*.

Eta Gurrutxagak paralelo bat egiten du XIXgarrenean gero gertatuko denarekin: Foruen alde nekazaritza, langileria; horien aurka, salerosleak, Donostiako hiria, XVIIigarreneko Matxinada honetan ere errepresioaren alde egongo direnak.

---

<sup>1</sup> "La Matxinada del año 1766 en Azpeitia". Yakintza, revista de cultura vasca, nº 5, septiembre-octubre, 1933, pp. 323-392.